

## **IRAGARKIA**

Bermeoko Udalak 2015eko azaroaren 16an izandako Osoko Bilkuran Mediku laguntzen araudia hasieraz onartu eban, 2015eko abenduaren 18an BAOan argitaratu eta jagokon epea igarota, alegaziorik aurkeztu ez danez, behin betiko onartuta gelditzen da, ondoren adierazoten dan moduan:

### **MEDIKU-LAGUNTZEN BATZORDEAREN ARAUTEGIA**

#### **BATZORDEAREN XEDEA, ERAKETA ETA FUNTZIONAMENDUA**

##### **1. Artikulua**

Mediku-laguntzen batzordearen xede bakarra Gizarte Segurantzaren prestazioak osatzea da.

##### **2. Artikulua**

Laguntzen batzordea honela osotuta geratuko da:

- Alkatea edo berak izendatutako zinegotzia
- Langileria batzordeko zinegotzi bi
- Langileria teknikaria
- Langileria batzordeko idazkaria
- Langileen ordezkarien aldetik, langileen batzordeak izendatutako hiru ordezkari sindikal, bat sindikatu bakoitzetik.

##### **3. Artikulua**

Batzordea, oro har, hileroko batuko da aurkeztutako kasuak aztertzeko. Premiatasunezko kasuetan eta salbuespenez, egoerak horrela eskatzen badu, edo Administrazioak edo sindikatu bik eskatuz, ezohiko bilera dei daiteke.

## **ONURADUNAK**

#### **4. Artikulua**

Batzorde honen onurak Bermeoko Udaleko eta bere organismo autonomoetako honako langile hauek izango dituzte:

- Karrerako funtzionarioek
- Langile laboral finkoek
- Sei hilabete baino gehiagoko lan harremana duten bitarteko funtzionarioek
- Urte bateko epean (lan kontratu bat baino behiagorekin ere) 8 hilabete baino gehiagoko aldi baterako langileek

#### **5. Artikulua**

Beste hauek ere Batzordearen prestazioetarako eskubidea izango dute:

Udal langilearen menpe dagoen familia zuzenak (ezkontide eta seme-alabak), beti langilearen mendekotasun ekonomikoan badago, ordaindutako lanik egiten ez badute, ezelako ordainsaririk hartzen ez badute eta udal langilearen familia-liburuan badaude.

### **ESKARIAK. DOKUMENTAZIOA. EPEA**

#### **6. Artikulua**

Bermeoko Udaleko edo bere organismo autonomoetako erregistroan aurkeztuko dira eskabideak.

#### **7. Artikulua**

Honako agiri hauekin batera aurkeztu beharko dira eskabideak:

1. "Hartuta" agertzen duen ordainagiria edo faktura, ordainketa egin dela eta erosketa edo izandako tratamendua ondo kreditatzen duena. Tratamendu mediku-estomatologikoaren kasuan, horren deskribapena eta prezioaren banakatzea agertu beharko da.

Jatorrizko agiria izan behar da.

Ordainagiriak interesdunari itzuliko zaizkio, aipatutako kontzeptuagatik batzordeak emandako laguntzaren diru-kopurua bertan azalduz.

Horretarako jatorrizko agiriaz gain, fotokopia bat aurkeztu beharko da.

2. Laguntza onuradunarentzat denean, Gizarte Segurantzako txarteleko P-1 inprimakiaren kopia aurkeztu beharko da. Laguntza, titularrarentzat izanez gero, ez da beharrezkoa izango txartelaren kopia.
3. Asistentziaren beharrezana agertzen duen adierazpen fakultatiboaren kopia.
4. Betaurrekoen edo lentillen graduazio gaurkotua (Espezialista edo Optika).

Era beran, batzordeak beharrezkotzat jotzen dituen agiriak aurkezteko eta argitzeko eska dezake.

## **8. Artikulua**

Eskabidea aurkezteko gehieneko epea, edota, eskatutako agiriak eta argibideak, ekintza eragilearen datatik hasita 6 hilabetekoa izango da. Data biak, eskabidearen aurkezpenarena eta ekintza eragilearena, eskatzailearen lan-harremanaren barne egon beharko dira. Epeak, ordaingiriaren datetatik konputatuko dira.

## **9. Artikulua**

Eskabide guztiak, gehienez ere, sei (6) hilabeteko epean erabakiko dira, eta onartutzat ulertuko dira aipaturiko epean berariaz erabaki ez direnak.

## **OFTALMOLOGIA, ESTOMATOLOGIA, ORTODONTZIA, AUDIFONOAK**

## **10. Artikulua**

Arautegi honen eranskin modura agertzen den baremoaren arabera emango dira laguntzak; langileak Udalean duen lanaldi-portzentaia kontuan hartuko da, eta horren arabera ordainduko zaio langileari dagokion diru.

## **BESTE KONTZEPTUEGATIKO LAGUNTZAK**

## **11. Artikulua**

Laguntza hauek batzordearen irizpidearen arabera emango dira, zergatia justifikatua dela iritziz gero eta honako baldintza hauen arabera:

- a) *Gizarte Segurantzaz sartzan ez diren mediku-tratamenduentzat, interesdunak Langileria Sailean aurkeztu beharko du eskabidea,*

tratamendua edo ebakuntza gomendatzen duen justifikazio mediko espezializatuarekin batera. Halaber, agindutako tratamenduaren beharrezana kreditatzen duten diktamen medikoak ere aurkeztu beharko ditu, fakturekin batera.

Aipatutako baldintzak kreditatuz gero eta aurkeztutako txostenak egiaztatu ondoren, batzordeak, bere irizpidearen arabera, laguntza emango du, beti ere **370,42** euro gehienez.

Helduen ortodontzien kasuetan, portzentajea baremoan ezarritakoa izango da.

Kirurgia-estetikoa ez da sartzen.

- b) Irakaskuntza garaian (16 urte eta gutxiago) dauden adingabekoen *logopedia, psikomotrizitatea, psikoterapia*, etab. kasuetan, interesdunak eskabidearekin batera ekipo ofizial (Osakidetzako espezialistak, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko Orientabide pedagogikoaren zentroa, Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Saileko Elbarrituen oinarrizko zentroa, etab.) baten diagnostikoa eta orientabidea aurkeztu beharko ditu.

Helduak badira, interesdunak, bere eskabidearekin batera tratamendua egiteko Osakidetzako espezialistaren (psikiatra, psikologoa) txostena aurkeztu beharko du.

Onartuko den laguntza baremoan ezarritakoaren araberakoa izango da.

Eragina, batzordearen onarpena eskatzen den datatik aurrerakoak izango da.

Aurkezten diren ordainagirietan, tratamendua onartu ondoren, saioetako datak agertu beharko dira.

- c) *Famili plangintzako ebakuntzen* kasuetan, laguntzak eman daitezke, nahiz eta medikuntza ofizialak estali, egiteko sei (6) hilabete baino gehiago itxaron behar duenean, beti ere, berandutzea kreditatua geratzen bada.

Laguntzaren zenbatekoa, eragindako gastuen %80aren pareko portzentajea izango da, **246,95** euro gehienez.

- Umetoki barneko gailuak ezartzea: Gailuaren kostuari dagokionez, gehienez **37,04** euro ordainduko dira, aurretiaz faktura aurkeztuz.

- d) Podologiako tratamenduak farmazia-mediko prestazioen izaera izango dute, eta beraz, faktura aurretiaz aurkeztuz, eragindako gastuen %30 itzuliko da.
- e) *Egonaldiगतिक, Bizkaitik at egindako tratamenduetan*, eta Gizarte Segurantzak aginduta, **18,51** euro/eguneko laguntza eman ahal izango da, beti ere asistentzia hartu behar duen pertsona (bai langilea bai bere onuradunaren bat) ospitaleratuta ez badago. Horretarako, tratamenduaren data eta tokiaz gain, Gizarte Segurantzak emandakoa dela eta ez dagoela ospitaleratuta justifikatu beharko du.

*Tratamendu luzeak (errehabilitazioa, etab.) eragindako joan-etorriगतिक ere laguntzak eman daitezke, Gizarte Segurantzaren aginduz egindakoak badira eta beti ere joan-etorri horiek berak ez baditu estaltzen. Laguntza, ohiko garraiobidearen erabilpenak sortutako gastuak ordaintzean datza eta dagokion irizpen medikoarekin justifikatu beharko dira. Horrez gain, asistentzien ziurtagiriak eta erabilitako joan-etorrien ziurtagiriak ere aurkeztu beharko dira.*

- f) *Osakidetzak atenditu ez duen material orto-protetikokoak*, baremoan ezarritako laguntza izango du, beti ere osasun-zerbitzuko espezialistak aginduta badago. **36,31** euro baino gutxiagoko produktuen fakturak ez dira ordainduko.
- g) *Erditzerako prestakuntza ikastaroak*, baremoan ezarritako laguntza izango dute, lan-ordutegiगतिक ezinezkoa denean dagokion osasun zentrorra joatea. Kontu hori dagozkion dokumentuekin kreditatu beharko da.

## **AZKEN ARAUAK**

### **12. Artikulua**

Arautegi honetan aurreikusten ez dena, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen arabera arautuko da.

### **13. Artikulua**

2005eko urtarrilaren 1ean izango da indarrean.

#### **14. Artikulua**

Arautegi honetan batzen diren laguntzak urtero gaurkotuko dira KPIren pareko igoerarekin.

### **LAGUNTZEN BATZORDEAREN BAREMOA (2015/01/01)**

**OFTALMOLOGIA** (ordenagailuetako monitoreentzat deitutako betaurrekoak ez dira sartzen):

- Betaurreko osoak: **37,04** euro
- Kristal bifokalak, progresiboak edo graduazioagatiko material bereziko betaurreko osoak: **86,43** euro
- Ohiko kristalak berriztea: **24,69** euro
- Kristal bifokalen, progresiboen edo graduazioagatiko material bereziko kristalak berriztea: **30,88** euro
- Ohiko betaurreentzako armazoia: **14,83** euro
- Betaurreko bifokalentzat, progresiboentzat edo graduazioarengatiko material berezidunentzat armazoia: **22,23** euro
- Lentillak: **61,74** euro

*Laguntzaren baliotasuna:* Betaurrekoengatik edo lentillengatik, graduazio aldaketa barik, beste laguntza bat hartzeko, aurreko erosketatik urte bi (2) pasatu beharko dira. Epe horren barruan apurtu edo galduz gero, eta 15 urte baino gutxiagokoa bada laguntza osoa behin bakarrik emango da. Zaharragoa izanez gero, laguntzaren %60 onartuko da, hari ere behin bakarrik. Epeak, ordainagirien datetatik konputatuko dira.

#### **ESTOMATOLOGIA:**

- Hortz-protesi osoa, masailezur biak: **246,95** euro
- Hortz-protesi osoa, masailezur bat: **123,46** euro
- Piezak, bakoitza eta masailezurreko gehienez hamabi: **55,57** euro

- Buxadura, enpaste edo berregitea: **22,23** euro
- Endodontzia, desbitalizatzea, muinoia: **49,39** euro
- Implante osteointegratua: **104,96** euro

**ORTODONTZIA** (Jatorrizko faktura eta txostena gaixoaren izen abizenekin, adina, Bizkaiko Odontologoen eta Estomatologoen Elkargoak onartutako arauen arabera diagnostiko kodifikatuarekin, tratamenduaren hasiera eta amaiera data eta gutxi gorabeherako kostua azalduz): 18 urte baino lehenago hasiz gero, kostuaren **%40**, urtean **308,67** euro gehienez.

**AUDIFONOAK, FONAZIO-APARATUAK:** Erosketa-kostua, **370,42** euro gehienez.

**OSAKIDETZAK ATENDITU EZ DUEN MATERIAL ORTOPROTESIKOA:** Arautegiko baldintzak beteta: **%50**, gehienez **111,13** euro. Oinetako ortopedikoak ez dira sartzen.

**PLANTILLAK:** Erosketaren kostua, **38,28** euro gehienez. (parea).

*Epearen balioa:* Kontzeptu honegatik beste laguntza bat eskatzeko urtebete pasatu beharko da (epea ordainagiriaren datatik konputatuko da).

**PSIKOTERAPIA, HIZKUNTZAREN BERREZIKETA PSIKOMOTOREA:** Arautegiko baldintzak beteta: Astean gehienez bi saio, **24,69** euro gehienez prezioa bakoitzak.

**ERDITZEA PRESTATZEKO KURTSILOA:** Arautegiko baldintzak beteta: **111,13** euroraino.

**ELBARRITUENTZAT IBILGAILUA:** Kontzeptu horrengatik **370,42** eurora arteko laguntzak emango dira.

Bermeon, 2016ko martxoaren 14an  
Alkatea  
Idurre Bideguren Gabantxo